

# Pirinioetako

## IV. Mikroipuin

### LEHIAKETA



## Oinarriak

### 1. Egileak eta lanak

- Egileak 16 urtetik gorakoak izanen dira.
- Gaia librea da.
- Mikroipuina euskaraz idatziko da.
- Jatorrizkoa eta argitaratu gabea izanen da.
- Mikroipuinak, gehienez ere, 100 hitz izanen ditu.
- Egile bakoitzak ezin izanen du lan bat baino gehiago aurkeztu.

### 2. Kategoriak

1. Modalitate orokorra:  
**Pirinioetan bizi, erroldatuta egon edo etxea duen orori zuzendua.**
2. Euskara ikasleak:  
**Pirinioetako euskaltegietako ikasleei zuzendua.**

### 3. Non eta Nola aurkeztu

Lanak posta elektroniko bidez igorriko dira helbide honetara:  
**pirimikroipuinlehiaketa@gmail.com**

Mezuak honako informazioa edukiko du:

#### 1. Postaren izenburua:

Pirinioetako IV. Mikroipuin Lehiaketa-Euskara ikasleak ala Pirinioetako IV. Mikroipuin Lehiaketa-Orokorra, kasuan kasu.

**2. Word formatuko artxiboa, aurkezten den ipuinarekin,** ezizen batekin honela izendatuko dena: (EZIZENA)-ipuina.  
Adib: AUÑAMENDI-ipuina.

**3. Word formatuko artxiboa, egilearen datuak** jasoko dituen

eta ezizen berarekin izendatuko dena: (EZIZENA)-egilea.  
Adib: AUÑAMENDI-egilea. Artxiboan honakoa adieraziko da: egilearen izena, helbidea, NAN zenbakia, e-posta helbidea, telefono zenbakia eta euskaltegiaren izena (ikaslea izanez gero).

### 4. Epea

Zabalik dago **2022ko martxoaren 25a arte.**

### 5. Epaimahaia

Honakoek osatuko dute: euskara teknikari batek eta literatura gaietan aditu/zaletu diren bi lagunek.

### 6. Sariak

1. Orokorra: 1. saria: 150 €; 2. saria: oparia
2. Euskara ikasleak: 1. saria: 100 €; 2. saria: oparia

### 7. Ebazpena eta sari-banaketa

Sari-banaketa **2022ko maiatzaren 13an, 18:00etan, Erronkaribarko etxean (Erronkari).**


Ebazpena aurretik jakinaraziko da.

### 8. Saritutako lanak Mendixut aldizkarian argitaratuko dira.

### 9. Sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta, epaimahaiaren irizpidearen arabera, idazlanek behar bezalako merezimendurik ez badute.

### 10. Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.

**Antolatzaileak:** Artzibar, Auritz, Erroibar, Luzaide, Orreagako udalak; Aezkoa, Erronkariko eta Zaraitzuko ibarren batzordeak.



**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua



**Gobierno de Navarra**